

Norantz goaz?



JOXERRA AIZPURUA SARASOLA
INDUSTRIA INGENIARIA

2018. urtean Ipar poloan ez da errekorrik izan izotzen urketa mailan eta Trumpek aitzakia izango du ikatza erretzen duten zentralekin edo erreagai fosilei esker aritzen diren ibilgailuekin aurrera segitzeko; edo Bolsonarok Amazonian nekazaritza intentsiborako lurrak eskuratzeko; edo Macronek zentral nuklearren itxiera ahalik eta gehien atzeratzeko eta gainerakook ahalik eta gehien produzitzeko eta kontsumitzeko.

Ozono geruzaren arazoa konponduta zegoela iragarri ziguten 2017an, baina iazkoa gaudeneko hamarkadako larrienetakoa izan da. Hala ere, arazo hori Hego poloan denbora tarte txiki batean gertatzen denez, gaitz erdi. Txernobilen eta Fukushima jarritako txapelek erradiazioa barreiatzea eragozten dutenez, ez dugu haien inguruko berririk izan eta gure memoria kolektiboan ia ahaztuta ditugu.

Azken hamar urteetan pairatu dugun krisiak gehienok txirotu bagaitu ere, gutxi batzuk aberatsagoak dira, bai pertsonak, baita estatuak ere, baina hala eta guztiz ere, ezin uka teknologiak aurrera egin duela, eta nola gainera.

ZIENTZIA ALORRETIK GERO ETA OZENAGO ADIERAZTEN DIGUTE GURE MUNDUAK GERO ETA GAIXOTASUN LARRIAGOAK DITUELA, BAINA BIZITZA ERREALEAN NEURRI ZUZENTZAILE GUTXI HARTZEAZ GAIN, KATASTROFISTAK GURE ARTEAN BETIDANIK IZAN DIREN USTEA ZABALTZEN ARI DELA IRUDITZEN ZAIT

Zientzia alorretik gero eta ozenago adierazten digute gure munduak gero eta gaixotasun larriagoak dituela, baina bizitza errealean neurri zuzentzaile gutxi hartzeaz gain, katastrofistak gure artean betidanik izan diren ustea zabaltzen ari dela iruditzen zait. 2000. urtean mundua amaituko zela, itsas mailak gure hondartzak jan egingo dituela, Ozeano Artikoan urte gutxi barru ez dela izotzik izango, petrolioia amaitzeaz dagoela eta gauza-

tzen ikusiko ez ditugun abar luze batek nolabaiteko mesfidantza eragin du gizaratean. Izan ere, aipatu ditugun baieztapenekin batera jakin badakigu ikerketa zientifikoaren atzean enpresa handien interesak daudela.

Hala ere, zientzialarien esanek azarna utzi dute azken urteotan gure gizarte jardueran; hondakinen bilketa arduratsuagoa, energiaren eta uraren erabilpen egokiagoa, garraio publikoa hobetzea, eremu berdeak zabaltzea, herrietako planifikazio urbanistikoa eta beste zenbait kontzeptu barneratu ditugu. Baina produzitzen eta kontsumitzen segitu behar dugu eta gure herrietako barne produktu gordinak hazten segitu behar du gure bizi maila mantentzeko eta hobetzeko.

Obamaren eta Merkelen garaian zientziaren asmoa, neurri txiki batean bederen, mundua zaintzearen ildoan jarri zen, baina Trump, Bolsonaro eta akolito zerrenda luzea nagusi diren garaiotan, zientziak abiadura bizian jarraituko delakoan nago, baina norabidea aldatuta. Alegia, atzekoz aurrera. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

ogiaren egia

Galparsoro
OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



© 943 453 588 · www.sigacus.com